

Jurdana Uriarte Lejarraga Bermeoko Udaleko IDAZKARI NAGUSIAREN

25/2021 TXOSTENA

Gaia: San Juan de Gaztelugatxeren kudeaketan eskumena argitzea

Txostenaren oinarria: Toki Erakundearen Izaera Nazionalerako Gaikuntzadun Funtzionarioen Araubide Juridikoa onartzen duen martxoaren 16ko 128/2018 Errege Dekretuaren 3.3.a eta d.1 artikulua

1. Aurrekariak

Lehenengoa.- 2021eko apirilaren 22an Alkateak San Juan de Gaztelugatxeren kudeaketa nori dagokion argitzeko eskatu zion idazkari honi.

Bigarrena.- 2021eko apirilaren 22an idazkariak email bidez erantzun zion Alkateari

Hirugarrena.- 2021eko maiatzaren 19an alkatetzak emailez adierazitakoaren inguruko txostena egiteko eskatu dio idazkariari.

2. Oinarri juridikoak

2.1. Aplikagarria den araudia

- Irailaren 15eko 229/1998 Dekretua, Gaztelugatxe aldea babespeko biotopotzat deklaratzeko duena.
- 1/2014 Legegintzako Dekretua, apirilaren 15ekoa, Euskal Autonomia Erkidegoko Natura Kontserbatzeko Legearen testu bategina onartzen duena.
- Bizkaiko Foru Aldundiaren 153/2019 Foru Dekretua, urriaren 15ekoa, Iraunkortasuna eta Ingurune Naturala Zaintzeko Sailaren Egitura Organikoa arautzen duena.



- 7/1985 Legea, apirilaren 2koa, Toki Araubidearen Oinarriak Arautzen dituen.
- 40/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoari buruzkoa.
- 2020ko otsailaren 14ko 12/2020 Idazkariaren txostenean jasotako gainerakoak.

2.2. Azterketa juridikoa

San Juan de Gaztelugatxeren kudeaketaren eskumenari buruz

1/2014 Legegintzako Dekretua, apirilaren 15ekoa, Euskal Autonomia Erkidegoko Natura Kontserbatzeko Legearen testu bategina onartzen duenaren 25. artikulua lehenengo paragrafoan dio:

1. Foru-organo eskudunek kudeatu beharko dituzte natura-gune babestuak. Kudeaketa hori lege honek ematen dituen printzipioen eta bere oinarriko xedapenen arabera izango da, foru-administrazio eskudunak oro har eta berariaz xedatutako era eta administrazio-bideak erabiliz.

Bizkaiko Foru Aldundiaren 153/2019 Foru Dekretua, urriaren 15ekoa, Iraunkortasuna eta Ingurune Naturala Zaintzeko Sailaren Egitura Organikoa arautzen duenaren 27. Artikuluak Natura Ondarea Zaintzeko Zerbitzua jasotzen du:

Natura Ondarea Zaintzeko Zerbitzuari honako eginkizun hauek dagozkie:

- 1. Natura-ondarea kontserbatzea eta lehengoratzea.*
- 2. Bizkaiko Lurralde Historikoko naturagune babestuak kudeatzea.*
- 3. Naturagune babestuetan baso-kudeaketarekin lotutako jarduerak baimendu eta gainbegiratzea.*
- 4. Naturaren kontserbazioaren arloko inbertsio, jarduera eta azterlanak egiteko programak prestatzea.*
- 5. Bizkaiko Lurralde Historikoko Natura Baliabideak Antolatzeko Planak eta Naturaguneak Erabili eta Kudeatzeko Planak egin eta garatzea.*
- 6. Paisaia babesteko planak eta jarduerak egitea.*



7. Kudeaketa-planak egin eta gauzatzea Arriskuan dauden Espezien Euskadiko Zerrendan sartutako fauna eta flora basatien kasuan, bai eta fauna eta floraren espezie exotiko inbaditzaileei dagokienez ere.

8. Geodibertsitatea babesteko planak eta jarduerak egin eta gauzatzea.

9. Jarraipena eta kontrola egitea egiaztatzeke ea naturagune babestuetan eragina duten jarduera, plan edo proiektuak egokitzen diren beren kudeaketa-agirietara.

10. Bizkaiko Lurralde Historikoan ehizarako ez den basoko fauna harrapatzea, lekuz aldatzea eta aske uztea.

11. Zerbitzuari dagozkion gaiei buruzko txosten teknikoak egitea.

12. Zerbitzuari dagokion aurrekontua egin, kontrolatu eta gauzatzea; horrek ez du eragotziko Zerbitzu Orokorren Zerbitzuak ekonomiaren eta aurrekontuen arloko bulego kudeatzaile gisa egiten duen jarduera.

13. Goragoko organoek agintzen dizkioten gainerako guztiak.

1/2014 Legegintzako Dekretua, apirilaren 15ekoa, Euskal Autonomia Erkidegoko Natura Kontserbatzeko Legearen testu bateginaren 26. artikulua arabera natura-guneak kudeatzeko organoek hurrengo **eginkizunak** bete beharko dituzte:

a) Urtero kudeaketaren aurrekontua eta programa eratzea. Natura-parkeen kasuan, horien onarpena patronatuak eman beharko du, 34. artikuluan ezarrita dagoenaren arabera. Agiri horietan, dauden natura-baliabideen antolamendu-planen xedapenak aurrera eramatea ezarri beharko da.

b) Bertako zerbitzuetatik jasotako fondoak eta kanpotik jaso ditzaketen baliabideak administratzea.


c) Natura-gune babestuen babeserako arauak gune horien barruan bete daitezen zaintzea. Babeserako arau horiek Natura Baliabideen Antolamendu Planean edo, hala badagokio, natura-gune babestuaren izendatze-arauan ezarrita daudenak dira. Orobat, natura-gunea kudeatzeko organoak bidezko diren txosten eta baimenak egin beharko ditu.

d) VI. tituluaren ezarritako zehatzeko ahala erabiltzea.



e) Indarrean dagoen legerian, natura-baliabideen antolamendu-planetan eta erabilera eta kudeaketa zuzentzeko planetan ezarrita dagoen beste edozein eginkizun.

1998ko irailaren 15eko 229/1998 Dekretuz, Gaztelugatxe aldea babespeko biotopotzat deklaratu zen.¹



Beraz, Gaztelugatxe aldearen kudeaketa Bizkaiko Foru Aldundiaren Natura ondarea zaintzeko zerbitzuari dagokio natura gunee babestua den heinean.

¹ 2009ko uztailaren 15eko Euskal Autonomia Erkidegoko Aldizkari Ofizialean zuzenketa argitaratu zen.



Idazkari honen 2020ko otsailaren 14ko 12/2020 txostenari buruz

2020ko otsailaren 14an Alkatetzaren eskariz idazkari honek San Juan de Gaztelugatxeren egoerari buruzko txostena egin zuen, Alkatearen hurrengo galderei erantzuteko:

- 1.- *Gaztelugatxeko erabilera Udalak erreserbatzeko edo bertan egiten diren ekintzak udalak baimentzeko aukeraz*
- 2.- *Gaztelugatxer zerbitzu publikoak emateko administrazioen (Udala, Bizkaiko Foru Aldundia eta Estatuko Administrazio Orokorren) zein elizaren eskumenak zehazteaz*
- 3.- *Gaztelugatxeko irudiaren eskubideak kudeatzeaz*

Txosten horretan ondorengoa ondorioztatzen zen:

1.- *Gaztelugatxeko erabilera Udalak erreserbatzea edo bertan egiten diren ekintzak udalak baimentzea:*

Hiru egoera bereizi behar dira:

- *Itsas-lehorreko jabari publikoan, Bermeoko Udalak txostenak egiteko eskumena dauka, Estatuko Administrazio Orokorrek baimenak, emakidak... ematen dituenean. Ostera, eremu horretan Udalak erabilera berezia edo pribatua egin nahi badu, baimena edo emakida eskatu beharko dio Estatuko Administrazio Orokorriari.*
 - *Uharterako sarbidean, Udalak daukan emakidaren nondik norakoak argitu behar dira. Eta emakida eman nahi den erabilerarekin bat ez badator, baimena eskatu beharko dio Estatuko Administrazio Orokorriari.*
 - *Jabetza Udalak daukan kasuetan, udalak bere ondarea erreserba dezake zerbitzu publikoa emateko edo erabiltzaileei baimenak edo emakidak eska diezazkioke, horretarako dagokion araudia eta prozedura onartuz.*
- Horrez gain, Udalak, besteak beste, turismoa sustatzeko eskumena duen heinean, Ordenantzak onar ditzake Bermeoko lur eremuan turismo horren oinarriak finkatzeko.*



2.- Gaztelugatxeren erabilerarekiko administrazioen (Udala, Bizkaiko Foru Aldundia eta Estatuko Administrazio Orokorrak) zein elizaren eskumenak zehaztea:

Administrazio ezberdinen arteko eskumenak Kostaldeko Legedian eta hori garatzen duen araudian beren beregi jasota daude. Laburbilduz, hau esan genezake:

- *Udalak bere eskumenen barruan (turismoa, segurtasuna...) arautu dezake bere lur eremuan (San Juan de Gaztelugatxe barne) aplikatu beharreko araudia, beti ere arauen hierarkia errespetatuz. Gainera, aurretik esandakoarekin bat, Gaztelugatxen emango diren baimen zein emakidetan txostenak egin beharko ditu.*
- *Bizkaiko Foru Aldundiak asistentzia eskumenak, zein plangintza eskumenak, zein ingurumenari buruzkoak dauzka.*

Ingurumen eskumenen barruan sartzen da gune natural babestuak kudeatzeko eskumena.

- *Eusko Jaurlaritzak lurraldea eta itsasertzea arautzeko eskumenak dauzka.*
- *Elizaren eskumenen inguruko informaziorik ez dago.*

3.- Gaztelugatxeko irudiaren eskubideak zelan kudeatu daitezkeen:

- *Udalak bere ondasun eta eskubideak defendatu behar ditu.*
- *Kasu honetan, Gaztelugatxeren marka erregistratzea aztertu daiteke.*
- *Ordenantza fiskalak dira tresna egokiak tasak arautzeko, beti ere, gaur egungo ordenamendu juridikoa eta jurisprudentzia kontuan hartuz.*

Administrazioen arteko lankidetzari buruz

Urriaren 1eko Sektore Publikoaren Araubide Juridikoari buruzko 40/2015 Legearen 3. artikuluan administrazioek jarraitu beharreko printzipioak jaso dira. Artikulu horren arabera:

k. Las Administraciones Públicas sirven con objetividad los intereses generales y actúan de acuerdo con los principios de eficacia, jerarquía,



descentralización, desconcentración y coordinación, con sometimiento pleno a la Constitución, a la Ley y al Derecho.

Deberán respetar en su actuación y relaciones los siguientes principios:

- a) Servicio efectivo a los ciudadanos.*
- b) Simplicidad, claridad y proximidad a los ciudadanos.*
- c) Participación, objetividad y transparencia de la actuación administrativa.*
- d) Racionalización y agilidad de los procedimientos administrativos y de las actividades materiales de gestión.*
- e) Buena fe, confianza legítima y lealtad institucional.*
- f) Responsabilidad por la gestión pública.*
- g) Planificación y dirección por objetivos y control de la gestión y evaluación de los resultados de las políticas públicas.*
- h) Eficacia en el cumplimiento de los objetivos fijados.*
- i) Economía, suficiencia y adecuación estricta de los medios a los fines institucionales.*
- j) Eficiencia en la asignación y utilización de los recursos públicos.*
- k) Cooperación, colaboración y coordinación entre las Administraciones Públicas.***

Kooperazio eta lankidetzaz horrek zer suposatzen duen eta zein teknika dauden lege bereko 141. artikuluetan eta hurrengoetan daude araututa.

Kasu honetan Gaztelugatxe Bermeoko udalerrian eta kostaldean dagoen heinean ezinbestekoa da Bizkaiko Foru Aldundiaren, Administrazio Orokorraren, inplikaturako bestelako administrazioen eta Bermeoko Udalaren artean kooperazio, lankidetzaz eta koordinazio printzipioak eta arauak aplikatzea.



3. Ondorioak

Aurretik azaldutako guztia kontuan hartuz, hurrengoa laburbildu daiteke:

Lehena.- Gaztelugatxe aldea gunee babestua denez, **kudeaketa Bizkaiko Foru Aldundiari** dagokio.

Bigarrena.- Idazkari honek 2020ko otsailaren 14an egindako **12/2020 txostena** kontuan izan behar da, Gaztelugatxeko erabilera Udalak erreserbatzeko edo bertan egiten diren ekintzak udalak baimentzeko aukeraz eta Gaztelugatxen zerbitzu publikoak emateko administrazioen (Udala, Bizkaiko Foru Aldundia eta Estatuko Administrazio Orokorraren) zein elizaren eskumenak zehazteaz.

Hirugarrena.- Gaztelugatxeren inguruan hainbat administrazioek eskumenak eta betebeharrak dituzten heinean, **administrazioen arteko kooperazio, lankidetzeta eta koordinazioa ezinbestekoa da**, administrazioek aplikatu beharreko oinarriko printzipioekin bat.

Hori da nire ustea, zuzenbidean oinarritutako bestelako irizpideen kalterik gabe. Dena den, irizpide hau ez da loteslea eta Alkateak egoki deritzona erabakiko du.

Bermeon, orri oinean zehaztutako datan

Jurdana Uriarte Lejarraga,

Idazkari nagusia



Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.

Kodea:
07E50006D14000X5Z6S3J7I9R7

Sinadurea eta data

JURDANA URIARTE LEJARRAGA-IDAZKARI NAGUSIA - 27/05/2021
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 27/05/2021
11:52:34

DOCUMENTO: 20210446784

Data: 27/05/2021
Lekua: Bermeon
Erregistro unidatea:
Erregistro nagusia

